



NAGORE MARTINEK URTEKO BIGARREN TITULUA BILATUKO DU MALLABIAN

Euskal Liga irabazi ostean, arabarrak Eliteko txapela lortu nahi du, Etxanizekin batera

Nagore Martín arabarra urteko bere bigarren tituluaren bila aterako da bihar Mallabiako kantxara (19:00etan, bigarren partida), izan ere, Laura Saezekin batera, Mallabian ere jokaturako Kluben Arteko Euskal Ligako finala irabazi ostean, orain nesken gomazko paletako Elitea eskuratzeko aukera dauka.

Kasu honetan, Errekaleor klubeko paletistak Leire Etxaniz izango du atzean, bizkaitar hau goi-mailako pilotaria da eta elkarrekin sailkapen ligaxkako hiru partidetan nagusitu ziren. Jarraian, finalerdian, Irazustabarrena-Ruiz de Larramendi utzi zituzten kanpoan.

Martín-Etxanizen aurkariak Arrizabalaga-Mendizabal izango dira. Azken hauek oso bikote indartsua osatzen dute eta aurreko kanporaketan Murillo-Arrieta menderatu zituzten 25-13ko emaitzaz. Orain, Nagore Martinek iaz Garazi Eizmendirekin batera erdietsitako titulua ez berritzea saiatuko dira

Lehen Mailako Irekia

Jaialdiko lehen norgehiagoka, 19:00etatik aurrera, Lehen Mailako Irekiko finala izango da eta bertan San Sebastián-Erasunek ere urteko bere bigarren titulua eskuratu nahiko dute. Izan ere, urtarrilean, Ziotza klubaren koloreak defendatuz, gazte mailako Euskal Liga irabazi zuten.

Gipuzkoarrek Murga-Pérez de Arrilucea kanporatu zituzten finalerdian (25-18) eta bihar Araiztegi-Senperenak izango dituzte arerio. Hauek oso indartsu daude eta iragan astean Goikoetxea-Lasari irabazi zieten 25-5, bere kalitatea erakutsiz.



NAGORE MARTÍN ASPIRA AL DOBLETE EN MALLABIA

Tras ganar la Liga Vasca, la alavesa busca mañana el Élite con Etxaniz como zaguera

La alavesa Nagore Martín aspira a conseguir mañana en Mallabia (19:00 horas, segundo partido), su particular doblete en este 2017, puesto que después de haber vencido en la Liga Vasca de Clubes, cuya final también aconteció en Mallabia y donde tuvo como compañera a Laura Sáez, ahora tiene la oportunidad de conquistar el Élite de paleta goma femenina.

En esta ocasión, la paletista de Errekaleor contará en la zaga con Leire Etxaniz, una vizcaína de primer nivel junto a la que se ha impuesto en los tres partidos de la liguilla clasificatoria y en la posterior semifinal, en la que tuvo como adversarios a Irazustabarrena-Ruiz de Larramendi.

Sus rivales serán Arrizabalaga-Mendizabal, que integran un dúo muy potente que en la anterior eliminatoria ya venció a Murillo-Arrieta por 25-13 e intentará que Nagore Martín no reedite el título logrado en 2016, cuando la gasteiztarra se impuso con Garazi Eizmendi como compañera.

Final del Abierto de Primera

El primer partido de la función, a partir de las 19:00 horas, supondrá la final del Abierto de Primera, en la que San Sebastián-Erasun también buscarán el doblete en el presente año, puesto que en enero ya ganaron la Liga Vasca juvenil defendiendo los colores de Ziotza.

Las rivales de las guipuzcoanas, que en la anterior ronda dejaron en la cuneta a Murga-Pérez de Arrilucea (25-18), serán Araiztegi-Senperena, quienes en la semifinal exhibieron todo su potencial al doblegar por 25-5 a Goikoetxea-Lasa.